

GREZIA: Kapitalismo basatiaren aurrean, nola eraiki Euskal Herri bizi eta eraldatzailea > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Peru, Ane, Olatz... etorkizuna iragartzen dabiltzan ahotsak **RAMON SOLA > 9**

2018ko abuztuaren 4a | XII. urtea • 580. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**JERARDO ELORTZA,
OÑATIKO ARTXIBO
BIZIA > 18**

Jaizki FONTANEDA | FOKU



**Grezian, kapitalismo basatiaren
aurrean Euskal Herri eraldatzaile
bat eraikitzeko gakoan bila** 04

**Bizipozaren jaia Errenterian
ospatuko da, irailaren 29an** 10

**E.lkarrizketa: Jerardo Elortza,
Euskal Herriko eta Oñatiko
historiaren artxibo bizia** 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** BRICS taldearen kokapena nazioarteko anabasan
- 08 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Oporretarako lurraldeak
- 09 **Ramon Sola:** Peru, Ane, Olatz... etorkizuna iragartzen dabiltzan ahotsak
- 14 **EXPRAI**
- 15 **Mirari Martiarena Iraola:** Iratxo dortoka
- 15 **Koldo Sagasti:** Zatoz eta konta ezazu
- 17 **Amagoia Mujika Telleria:** Zer usain dauka beldurrak?
- 22 **Amaia Urrejola:** Sexuaren arazo bakarra sexismoa da



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

BRICS taldearen kokapena nazioarteko anabasan

Pasa den astean BRICS taldearen azken bilera egin zen Johannesburgon. Brasil, Errusia, Txina eta India 2009. urtean bildu ziren lehenengo aldiz, krisi finantzarioaren hasieran. Urte bat geroago Hego Afrika gehitu zen taldera. Hamar gailur egin ostean, beharbada, oraingo honetan balantzea egin eta aurrera begira estrategia finkatu dute. Are gehiago uneko nazioarteko testuinguru aldakorra kontuan hartuta. AEBetako Administrazio berriaren isolazionismo, protekzionismo eta aldebakartasun politikek erabat aldatu dute nazioarteko eremua, erronka berriak sortuz nazioarteko eragile guztientzat, baita BRICS taldearentzat berarentzat ere. Kontuan hartu behar dugu BRICS ez dela nolanhiko elkarte. Bost bazkideen artean munduko populazioaren %40 barnebiltzen dute eta produkzioaren %23 ekoizten dute. Zenbakiotan Txinak duen pisua erabakigarria da, baina ez soilik.

BRICS taldea osatzen duten estatuak oso ezberdinak dira, bai pisu politikoaren ikuspuntutik, baita ikuspuntu ekonomikotik ere. Zaila da aniztasun hori kudeatzea. Are gehiago, barneko egoera politikoa ezegonkorra denean; Brasil eta India dira momentu honetan lidergo arazoak dituzten herrialdeak, Hego Afrikako presidente aldaketa gertatu eta gero. Horrez gain, badira beraien arteko kontraesanak ere, esanguratsuenak, beharbada, Txinaren eta Indiaren artekoak. Horregatik, inork gutxi uste zuen talde horretatik ezer garrantzitsurik aterako zenik.

Kontraesanak kontraesan, baina, hamar urteotan, adierazpenak adosteaz gain, gauza batzuk ere egin dituzte. Esate baterako, lantaldeak osatu dituzte gai asko eta ezberdinak elkarrekin lantzeko, genero berdintasunetik hasi eta industria digitaleraino. Martxan jarri dituzten proiektuen artean, bi dira esanguratsuenak. Alde batetik, *Contingent Reserve Arrangement* edo Erreserba Kontingentearen Akordioa, zeinaren arabera funts bat sortu zu-

ten epe motzeko ordainketekin arazoak dituzten taldeko estatuak likideziarekin hornitzeko. Beste proiektua *New Development Bank* edo Garapenerako Banku Berria da, garapen proiektu iraunkorrek finantzatzea xede duena. Orain arte bultzatutako egitasmo gehienek energia berriagarriekin dute zerikusia. Hala ere, badira gutxi batzuk ur hornidurarekin edota azpiegitura sozialekin lotutakoak. Guztira 23 proiektu babestu edo finantzatu ditu Bankuak, 6.000 milioi dolarreko maileguak emanez.

Epe motzean ziurrenik aldaketarik gabe jarraituko du taldeak. Baina munduan emandako aldaketen ondorioz, asko taldearen garrantziaz jabetu direla ematen du. Horretan asko lagundu du Turkiako presidente Recep Tayyip Erdoganek. Izan ere, Turkia taldeko partaide bihurtzeko eskaera egin du. Momentuz, aukera hori baztertu dute

Kontraesanak kontraesan, hamar urteotan, adierazpenak adosteaz gain, gauza batzuk ere egin dituzte BRICS taldeko kideek. Esate baterako, lantaldeak osatu dituzte gai asko eta ezberdinak elkarrekin lantzeko

BRICSeko partaideek. Ez dute beharrezko ikusten taldea zabaltzea. Horren ordez, orain arte bezala jarraituko dute, beste gobernuarekin biltzeko taldearen gailurak baliatuz. Johannesburgon, Turkiaz gain, Argentina, Zimbabwe, Senegal, Ruanda eta Namibia ere egon dira.

Turkiari emandako erantzuna esanguratsua da. Badakite taldea zabalduz gero, askoz zailagoa izango dela taldea gai zehatzen inguruan trinkotzea. Barne egituraketan sakontzea lehenetsi dute, aldatzen ari den mundu honetan taldearen garrantzia handituko den jakitun. Nazioarteko marko berria ez da egun batetik bestera sortuko, baina BRICS taldeak berak ere parte hartu nahi du marko berri hori nolakoa izango den definitzeko lanetan. •

GREZIA

Kapitalismo basatiaren aurrean, nola eraiki Euskal Herri bizi eta eraldatzailea?

 **JENDARTEA** / Askapeneko brigadistak

«Bidaia-aren zati bat egin dugu, baina hau ez da bukatu; orain, Euskal Herrian lan egitea dagokigu. Grezia, jarraitu gogor borrokan; zuek handik eta guk hemendik egingo ditugu etorkizun hobeago baten aldeko urratsak! Kalidinamital!». Horrela amaitzen dute Grezia bisitatu berri duten brigadistek beren kronika modukoa.

Orain aste batzuk Bartzelonan elkartu ginen Greziako brigadara gindoazen hiru lagunak, bertako ezker independentistaren taberna batean. Abentura hasi genuen leku berean amaitu genuen. KOE Greziako Erakunde Komunistako kideek hartu gintuzten beren

etxeetan eta bidaiak hiru geldialdi izan zituen: Atenas hiriburua, Tesalonika eta Kreta. Grezian utzitako jendea eta anekdotak oso presente ditugu, eta sentipen anabasa bat barrenean. Zein laburra izan den eta, aldi berean, zein mamietsua! Kafe goiztiar baten bueltan brigadaren gaineko lehen ondorio eta irakaspenak idaztera animatu gara.

Euskal Herriko egoera aztertze-ko brigadistek esku hartu duten ekitaldietako baten irudia.
ASKAPENA

Hasteko, arreta deitu diguten gauzen inguruan aritu gara hizketan. *Kolotumba*. *Kolotumba* da burura datorkigun lehen hitza. Badakizue zer esan nahi duen? Zerbait egingo duzula esan, eta kontrakoa egitea. Eta hori da Greziako txoko askotan aurkitu dugun lehen sentipena; Syrizaren jarrrerak eragindako sentipena, hain zuzen.

AGINDU BAI, BETE EZ

Hamaika izan ziren ezkerreko koalizioak agintea eskuratu aurretik agindu zituen kontuak: Halkidikiko meatzeak etengo zituela, uraren pribatizazioa bertan behera geratuko zela, parke eolikoen eraikuntza gehiago ez zela egingo... Baina errealtatea bestelakoa izan da. Gauza gutxi aldatu dira Alexis Tsipras agintean dagoenetik.

Memorandumaren ondorioz hartu beharreko neurriek eta horien ondorioek desilusio itzela sortu dute greziarren artean. Esperantzarik eza da gaur egun nagusitzen den sentipena: aldaketan sinesten zutenek ikusi dute politikak aldatzeko aukerarik ez dagoela Gobernuan egonda ere. Gaur egun Grezia Troikaren kolonia bat dela uste dute herritarrek, burujabetza erabat galdu duen lurraldea dela.

Azpimarratzekoa da, greziarren aburuz bertako bizilagunak Memorandumaren bigarren atalean aurkitzen direla gaur egun. Lehen kapituluan, murrizketak eta pribatizazio neurriak izan ziren protagonistak. Orain, berriz, Greziak duen kokapen geostrategikoarekin lotura duten aferak dira nagusi, hala nola NATOk Kretan eta Balkanetan dituen baseak, Mazedoniako auzia, Turkia, errefuxiatuen afera...





Bai greziarrek bai euskaldunok lupaz jarraitu beharreko mugimenduak dira horiek guztiak.

HIRIBURUA, BIZIRIK

Atenasen lau milioi biztanle baina gehiago bizi dira, Grezia osoko biztanleriaren erdia. Historia luzeko hiria, guda asko bizi izan ditu. Borroka horietako memoria presente dago egun hirian. Txoko eta proiektu ezberdinak ezagutuz josi dugu gure Atenasko egonaldia. Orrialdeotan azaltzen dizkizuegu ezagutu ahal izan ditugun proiektu horietako batzuk, asko ikasteko aukera eskaintzen baitute.

Azken urteotan itxaropena ia desagertu bada ere, izugarriak dira oinarritzko beharrei erantzuteko herritarrek sortu

Orain dela hamabost urte sortu zen Mesopotamia eskola soziala, auzoko bizilagunen lan boluntarioari esker. ASKAPENA

dituzten autoantolakuntza proiektu ezberdinak. Eskola eta klinika sozialak, elikadura kooperatibak, fabrika okupatuak, uraren pribatizazioaren aurkako borroka... Horiek guztiek oinarrian dute izaera kolektiboa, komunitatea da egi-tasmoen oinarria.

Horren erakusle da droga mendekotasunari aurre egiteko terapia kolektiboaren proiektua: pribatizazio prozesuekin eta murrizketekin jendartea suntsitu eta pixkana hil nahi izan duten bitartean, greziarrek aurrera egin dute, beraien artean antolatuz, elkartasunez eta modu kolektiboan.

Atenasko lehen zentro terapeutikoa 1983an urtean sortu zen, baina 2011ko krisiak dena aldatuko zuen. Gaur egun mendekotasuna handiagoa da, droga gehiago dago, sintetikoak, merkeagoak. Era berean, arazo fisiko, psikologiko zein psikiatriko gehiago sortzen direla diote terapia zentroko langileek. Zehazki, azken urteotan kalamuaren kontsumoak (lehenago ez zen ia existitzen) presentzia handia hartu du, 12 urtez gaindiko gazte jendearen artean. Baita «sise» deitzen dioten substantziak ere (krisiaren

MESOPOTAMIA ESKOLA SOZIALA, HEZKUNTZA GABEZIEI EMAN DIETEN HERRI IRTENBIDEA

Orain dela hamabost urte sortu zen Mesopotamia eskola soziala auzoko bizilagunen lan boluntarioari esker. Unibertsitatera joan ahal izateko ikasleek zuten laguntza beharretik etorri zen. Orduko eta egungo eskoletan, klasean ematen diren ikasgaiak ez dira aski Unibertsitateko azterketa gainditzeko. Hala, eskola berez publikoa bada ere –beraz, doakoa–, Unibertsitatean sartzeko klase partikularrak jasotzea ezinbestekoa da. Eskaera horri erantzunez, Grezian akademia pribatu ugari daude zerbitzu hori eskaintzen dutenak. Baina beharra duten familia guztiek ezin dute zerbitzua ordaindu. Hori dela eta, beharrari beste modu batean erantzuteko eta hezkuntzaren pribatizazioari aurre egiteko, 2003an Mesopotamia eskola soziala sortu zuten.

Zentroaren xedeetako bat da bere jardueraren bitartez ikasleen kontzientzian eragitea, kultura demokratikoagoa, parte hartzaileagoa eta integratzaileagoa sortzeko.

Eskolak boluntarioekin eta denbora bankuarekin funtzionatzen du. Mesopotamiako zerbitzuak jasotzen dituzten bizilagunek, modu zuzenean nahiz zeharka (ikasleak edo gurasoak adibidez), denbora bankuan egiten dute beraien ekarpena: klaseak emanez edo behar den horretan beraien ekarpena eginez (garbiketa, auzolana....). Unibertsitatean sartzeko edo bestelako tituluak (ingelesezkoak adibidez) ateratzeko ikasgaiak eskaintzen dituzte: hizkuntza, matematika, fisika, kimika... Ikasleen beharren arabera eraikitzen da. Sei urtetik aurrerako ikasleak aurki ditzakegu bertan, baita 50 urtekoak ere, eta ikasgai batean ikasle dena, agian beste ikasgai batean irakasle bezala ikusiko dugu.

Duela hamabost urte sortu bazen ere, 2011n lehertutako krisiaren ondorioz eskolaren zerbitzuak eskatzen dituzten bizilagunen kopurua biderkatu egin da. Gaur egun 300 ikasle daude eskola sozial horretan, eta ez da Atenas hiriburuan aurkituko dugun bakarra.

Hamaika izan ziren ezkerreko koalizioak agintea eskuratu aurretik agindu zituen kontuak, baina errealitatea bestelakoa izan da. Gauza gutxi aldatu dira agintean dagoenetik

Eskola eta klinika sozialak, elikadura kooperatibak, fabrika okupatuak, uraren pribatizazioaren aurkako borroka... Horiek guztiek oinarrian dute izaera kolektiboa

droga, elkarrekin heldu baitziren Greziara); kokaina sintetikoaren antzekoa da hori. Oso arriskutsua.

Drogazale etorkin eta erre-fuxiatuekin ere egiten dute lan. 2010era arte oso gutxi ziren drogatzen ziren etorkinak. Izan ere, mendekotasunak ikusgaitasuna dakar eta sektore horrek ikusezinagoa izan

nahi zuen. 2009 eta 2015 artean, ordea, kontsumoa gora egiten hasi zen. Modu paraleloan langabezia tasa ere hazi egin zen. 2015eko errefuxiatu olatuarekin egoerak eztanda egin zuen. Aurrez baztertuta bazeuden, arazoa biderkatu egin da. Adin txikikoen prostituzioa eta alkoholaren eta pilulen kontsumoa asko hazi dira.

BI BORROKA UZTARTU

Baina urteak ez dira alferrik pasatzen eta dagoeneko nekea antzematen da zenbait lagunen artean. Dena den, gauza batzuk oso argi dituzte: beraien sortutako proiekturik ezean, zaila izango litzateke aurrera egitea.

Arreta modu positiboan deitu diguten gauzen artean bada beste bat ere: gurekin elkartu diren lagunek borroka nazionalaren eta borroka sozialaren arteko uztartzearen gaineko interesa dute. Gaia-
ren inguruko galdera asko egin dizkigute Greziako zenbait txokotan eskainitako hitzaldietan (baita lagunartean ere), ezkerreko mugimenduei zaila egiten baitzaie bi borroken uztarketa ulertzea.

Greziar ikusitakoak eta ikasitakoak bizipenen motxilan sartu ditugu, eta gurekin dakartzagu etxera bueltan. Han



Metropolitan Community Clinic zentroan lan egiten duten profesioaletako batzuk. GAUR8

jasotako zenbait irakaspenek galderak eta zalantzak sortzen dizkigute.

Bat gatoz Grezia gaur egun laborategi bat dela esatean.

Eremu politikoan, ekonomikoan zein geopolitikoan ez ezik, nazio identitatearen eta estatu egituren inguruan ere aldaketak egiten ari dira.

Behin eta berriz azpimarratu digute egun Grezia kolonia bat dela. Estatu bat izanik ere, benetako burujabetza galdu duen herri bat

dela. Gobernua bera ez baita erabakiak hartzen dituenen, Troikaren aginduak betetzen dituenen baizik. Eta erakunde horrek Grezia bere

DIRURIK JASO GABE LANEAN BADA KIEN KLINIKA SOZIALA

Osasun sistema publikoak eskaintzen ez duen zerbitzua, brigadistek ikusi duten Grezian, herritarrek beraien eskaintzen dute. 2011ko abenduan hasi zen lanean Hellinikon dagoen Metropolitan Community Clinic zentroa. Austeritatearen aurkako mobilizazio erraldoietan osasun zerbitzu publikoa exijitu egiten zen garai hartan. Izan ere, legez, Gizarte Segurantzarik ez dutenek ezin dute osasun zerbitzu publikorik jaso. Zehazki, 2011. eta 2016. urteen artean 3 milioi pertsona izan ziren egoera horretan. Europako Kontseiluak berak «krisi sanitario» deitu dio egoerari: «Gero eta herritar gehiago daude kaltetuta, batez ere langabeak, etorkinak, errefuxiatuak, emakumeak eta haurrak». Kezka berezia eragiten dio Kontseiluari estaldura medikorik gabe geratu diren emakume haurdunen egoerak.

Behar horri modu autonomo eta autoantolatuan erantzuteko, hierarkiarik gabe, boluntarioekin eta lantaldeetan antolatuta, klinika sozial horrek sei urtean 60.000 kasu (ez pertsona) artatu ditu. Hasieratik lau printzipio nagusi izan ditu. Alde batetik, dirurik ez da onartzen, ez da existitzen klinikan. Egin nahi den ekarpenak materiala edo denbora behar du izan. Zentroa mobilizazio eta aktibazio sozialerako tresna ere bada, boluntarioen arabera. Eta ekarpenak ez dira publiko egiten, «denak berdinak gara». 2011z geroztik 65 mediku izan dira bertan, 19 espezialitatetakoak. Horiekin batera, 22 dentista, 18 farmazeutiko, 8 psikologo, 4 nutrizionista eta 254 boluntario baino gehiago. Erabakiak guztiak elkartzen dituen asanbladan hartzen dira.

Iaz, urtarrilean, legea aldatu egin zuten: Gizarte Segurantzarik ez

duteneke ere osasun zerbitzu publikoa jasotzeko aukera dute. Klinikak zerbitzuak murriztea erabaki zuen, eta gaur egun farmazia zerbitzua, psikologia eta neurologia bakarrik mantentzen ditu, azken horiek tratamendu luzeak eta zailak direlako.

Legea aldatu bada ere, ez da aski baliabiderik ez bada. Arazoak hor jarraitzen du. Alde batetik, medikamentuak eskuratzeko zailtasuna eduki behar da kontuan. Izan ere, Gobernuak zati bat finantzatzen badu ere, botikak oso garestiak dira eta herritar guztiek ezin dituzte eskuratu. Beraz, klinikako farmazia ezinbestekoa da, eta ez bertara hurbiltzen diren gaixoentzat bakarrik. Azpimarratzekoa da, eta larritzekoa, klinika honek ospitaleen, Armadaren eta gobernu kanpoko erakunde

eskariak ere jasotzen dituela. Hau da, Gobernuak finantzatzen dituen erakundeek herritarren borondatean eta lanean oinarritzen den klinikari eskatzen dizkiote botikak gaixoak artatzeko. Sinesgaitza XXI. mendeko Grezian.

Gaur egun, klinika horren antzeko beste bost klinika eta farmazia daude Atenasen. Espazio ireki handi batean kokatzen da, aireportu zaharra zen puntuan. Orain urte batzuk enpresa batek erosi eta luxuzko hotelak eraikitzeke proiektua jarri zuen martxan. Ekainaren 30ean klinikak alde egiteko azken eguna zuen, baina ez ziren mugitu, ezta mugituko ere, baldin eta beste gune bat ematen ez badiete. Presio sozial eta mediatikoa tarteko, enpresak leku berri bat agindu die. Bitartean, klinikak Hellinikon jarraituko du, gaur dagoen leku berean.

ERREFERENDUM BAT ETA AGINTEA IRABAZTEA NAHIKOA EZ DENEAN

nahieran erabiltzen du eremu guztietan.

Grezian ezagututako hainbat neurri ekonomiko espainiar Estatuaren eskutik ezagutu ditugu guk, eta itxuraz ezberdinak badira ere, oinarri komun bati erantzuten diotela uste dugu: neurriok zerbitzuen pribatizazioa gauzatzera eta Estatuaren eskumena mugatzera datoz. Neurri eta estrategia horiek baliabide gehienak enpresa pribatuen eta multinazionalen menpe gertzea ahalbidetuko dute. Globalizazio estrategia batean, identitateak, kulturak eta historiak urtu egiten dira, kapitalismoaren merkatu bilakatuz. Azken bolada honetako joerak ikusita, murrizketa eta neurri pribatizatzaile berrien aurrean ez ote gauden hausnartu dugu; Grezian bizi eta jasan dituzten neurriak ez ote ditugun gurean ere ikusiko (orain arte ikusi eta ezagutu ditugun neurriez gain). Eta hala izatekotan, prest al gaude balizko egoera horri erantzuteko?

Ikusi dugu Grezian oinarriko baliabideak –ura, hezkuntza, osasuna, elikadura, energia, etxebizitza...– ez daudela jende guztiaren eskura. Estatuak berak, Anaia Handiaren aginduz, mugatu dituela. Jabetu gara herria bere kabuz antolatu behar izan dela oinarriko beharrak bermatzeko eta, finean, bizirauteko. Bizirik ez dagoen herriak ezin du borrokatu. Beraz, burujabetzaren aldeko borrokan murgilduta gauden honetan, gure burujabetza nola eraikiko dugu? Nola egin oinarriko beharrak asetzeko? Pribatizazioaren, zentralizazioaren, estatalizazioaren, globalizazioaren, oro har, Europako kapitalismo basatiaren aurrean, nola eraiki Euskal Herri bizi eta eraldatzailea?

Uraren pribatizazioaren aurkako mugimendua goraipatu dute euskal brigadistek. Sekulako indarra eta imajinazioa erakutsi zituen, baina ez zen nahikoa izan urarekin ere negozio egin beste helbururik ez duten horien asmoak indargabetzeko. Tesalonikan jaso zuten giza mugimendu horren berri. Kontua 1990eko hamarkadan hasten da, Pasok alderdi sozialista agintean zegoen garaian.

NDF Nazioarteko Diru Funtsek eta Troiakak presio egin zioten Atenasi Greziako baliabideak pribatizatu zitzaizkion. Erakunde horiek zioten horrela egitea ezinbestekoa zela, Pasok-ek eta Demokrazia Berriak Gobernuan egon zirenean hartu zituzten konpromisoek aginduta. Esku pribatuetan utzi beharreko gauzen artean, Tesalonikako ur-hornikuntza zegoen.

Baina kasu honetan kaltetutako herritarrek ez zeuden geldirik egoteko eta elkartzen hasi ziren. Berehala konturatu ziren uraren publikotasuna defenditzen zuten lagunak asko zirela, ura ondasun publiko bezala ikusten zutela askok, ideia hegemonikoa zela hirian. Aurki egitekoak ziren udal hauteskundeak aprobetxatuz, gaiari buruzko erreferenduma egitea bururatu zitzaizkion eta horrela egin zuten, Gobernuaren mehatxuka eduki zuten arren: isunak, zigorrak, salaketak... Tesalonikarrek asmoari eutsi zioten eta 400 eskola prestatu zituzten kontsulta egin ahal izateko. Maiatzaren 18ko goizeko 6etan dena prest zegoen: ikastetxeak, mahaiak, boto-emaileak... Sekulako arrakasta izan zuen esperientziak, 290.000 herritar mobilizatu baitziren.

Uraren publikotasunaren aldeko jarrerak oso erraz irabazi zuen, eta horrexek eragin zion porrota, neurri batean. Horrexek, eta Syriza ezker erradikaleko koalizioak Greziako hauteskundeak irabazi izanak. Borroka irabazi zutelakoan geratu ziren asko, baina ez da horrela izan. Brigadistek esaten dute borrokan segitu beste erremediorik ez dutela tesalonikarrek.

Eyath Tesalonikako ur konpainia publikoa pribatizatzeari ezetz esan

zioten Tesalonikakoek 2014ko maiatzaren 18an egindako erreferendumean. Hiriko eta ondoko hamar udalerrietako agintariek antolatu zuten kontsulta, Atenasko Gobernuak (garai hartan Andonis Samaras kontserbadorea zen burua) debekatu egin bazuen ere. Esku hartu zutenen %98k neurri horren aurkako botoa eman zuten, eta %1,96k aldekoa. Kolore ideologiko ezberdinetako herritarrek bat egin zuten ura ez pribatizatzearen jarrerarekin. Europako makina bat giza mugimendutako

begiraleek zaindu zuten erreferenduma. Abokatu boluntarioak zeuden bozketa mahaietan. Inolako istilurik ez zen izan.

Brigadistek ondorioztatu dute Greziak burujabetza galdu egin duela eta Troika dela benetako agintaria. Herrialdeko egituren kontrola jadanik ez dago greziarren eskuetan, inork aukeratu ez duen erakunde boteretsuak ezarri duen konpainia baten mendean baizik, eta bertako bost kideetako hiru Troiak berak aukeratu ditu.



Tesalonikako plaza bateko iturri ikusgarria. GAUR8



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Oporretarako lurraldeak

Munduko zonalde honetan, uztaila eta abuztua onetsitako migrazio-hilabeteak ditugu: oporraldietarako ihesaldi garaia. Datuen arabera, munduan gertatzen den migrazio mugimendurik handi eta populatuena turismoa esaten zaio. Kanpoalderako mugimendua egiten dugu gorputza eta burua ahitu baino lehen, gaixotasunean erori aurretik, ongizatearen bidean. Oporrak, hedonismora sandalia hutsean botatzeko garaia. Intentsitatez gozatu nahi dugulako, nago udako plana erabakitzeko mahai-inguruak antolatu izan direla euskal etxe askotan. Nora eta nola joan erabakitzeko bideak eztabaidarako hizketa eta negoziaketa-tarteak utziko zituen, desio indibidualen ahoskatzeak bitartekari.

Oporraldietarako herrialde eta lurralde baten alde deliberatzea tokatzen zaigun, lurraldearen hausnarketa kontzientea burutzen dugu. Hirigile trebeak bilakatzen gara, alegia. Lurraldearen latitudea askorentzat ezinbesteko datua gertatzen da; eguzkiaren azimutak gidatu ohi du erabakia-eta. Hegaldien web orrialdeetan sartu aurretik, lurraldearen orografia ere tentuz aztertzen dugu. Mendikateen bailarak, mendien gailurrak, tontorrak eta ureztapen putzuak. Erreken meandroetako herrixkak, bainurako ibai txikiak. Lurraldearen kokapen estrategikoak lotzen dituzten oinezko ibilbideak, bideen maldak eta irisgarritasuna. Itsasaldeko morfologia; labarrak, kalak eta hondartzen

luzerak. Parke naturalik ote dagoen; ikuspegi paisajistikoe-tarako errepideak. Finean, landa eremua zaindu eta baloratzen duen lurraldean jartzen da interesa. Baina lurraldearen bertuteak disfrutatzearekin batera, hondartzako lehen lerroko hotelean lo egitea hautatutakoan, plazer uneak ingurumenean sortzen duen sarraskiaren ziztada iritsiko ote zaigu? Lurralde antolakuntza diseinatzen denean bezalaxe, giza bizitzak lurraldearen gain egin nahi dituen ustiatze desioei ere mugak jarri behar zaizkio.

Hirigile sena esnatzearekin batera, bat-batean arkitekturarekiko sentsibilitatea eskuratzea ere oso ohikoa izaten da. Herrialdearen arkitektura-altxorrengatik interes handia sortzen zaigu, izan arkitektura historikoa izan garaikidea. Apustu egingo nuke euskal arkitektura garaikideaz tutik ere ez dakienak, Finlandiara bidaiatu duenean Alvar Aalto arkitektoaren eraikinik bisitatu duela. Lurralde baten arkitekturak herrialdearen izaeraz hitz egingen duela aise ulertzen dugulako. Arkitekturaren materialtasunean itsatsirik historiaren errelato aztarnak eta memoria kolektiboarekin irudiak ikusgai ditugulako. Ez da interpretazio-museorik eraikinen adierazkortasuna gaindituko duenik.

Oporraldietan lurraldeei buruz biltzen dugun informazio eta begirada zorrotza negurako gorde dezagun, arren, deskantsuko oroimen freskagarriekin batera. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Peru, Ane, Olatz... etorkizuna iragartzen dabiltzan ahotsak

2017. urtean zehar orriotan agerturiko ahots berri potenteena aukeratzeko eskatu izan balidate, ez nukeen politiko bat hautatuko, ez intelektual bat, ez artista bat... Albiste latz batek, aitaren heriotza Badajozko espetxean, gordintasun osoz agerrarazi zuen bizitza osoan motxiladun ume-nerabe-gazte izana zen Peru del Hoyoren istorioa. Kasua berez ikargarri gogorra bazen ere, guztiz txundigarria izan zen tragediak Lakuntzako Hatortutxik zetorrela hain bortizki kolpatu zuen gaztearen erantzuna. Haren barre-nak hustu zituen Galdakaoko agur ekitaldian, bere modura, rap doinuz: «Zenbat egun, zenbat gau/ bizitza honek nazkatzen nau/ 40 minutu, milaka taupada/ milahirurehun kilometro, *una matada/ qué puta-da*». Eta egun batzuk geroago Maite Sanchez amarekin batera GARARI emandako elkarrizketan, malkoak begietan eta bihotza bero baina burua hotz, zenbait irakaspen utzi zituen (maitasunaz, saminaz, enpatiaz), bai eta ordezkari politikoei eskaintza zintzoa luzatu ere: «Nirekin eser daitezela eta ziur naiz, ideologia batekoak zein bestekoak izanda ere, sakabana-ketari eusteari buruz zalantzak izango dituztela».

Peru jaio eta Kepa espetxean hil arteko 19 urteetan zehar, bisita guztien denbora batuta, Peruk 19 egunez baino ez zuen ikusi aita. Ane Muguruzak, hori ere ez; amaren sabelean zen aita, Josu, Madrilgo Alcalá Hotelean hil zutenean. Peru del Hoyok eragindako antzeko zirrararen sentitu nuen duela hilabete eta erdi Bartzelonan, Euskal Herriko bake prozesuari buruz eginiko jardunaldian. Bertan Rosa Lluch zein Robert Manrique, ETaren atentatuen biktimak, atseginez agurtu zituen Muguruzak, eta, aldi berean, jarrera zeharo itxia duen Jose Vargas Kataluniako elkarte bateko ordezkariaren aurrean ez zen kikildu. Bere lekukotasuna emateaz gain torturaz eta gerra zikinaz oso ondo aukeratutako

datuak utzi zituen agerian Egiari Zor elkarteko kide ere baden gazteak. Eta Peru del Hoyok bezala mezu berri-tzaileak utzi zituen, honako hau adibidez: «Nik ez dut aita hil zutenak espetxean ikusteko beharrik. Bera hiltzeko erabakia Gobernu espainolaren bulego batean hartu zela onar zezatela gehiago interesatzen zait».

Olatz Iglesiasen bizitzak ere zer pentsatua ematen du. Amarekin [Nagore Mujika] espetxe barruan bizi izan zen umetan eta hor segitzen du aitak [Juan Carlos Iglesias]. Olatzek 11 urte bete arte, ezin izan zuten bise-an biseko batean hirurak elkartuta egon. Urruntze politikaren ondorioz ibili behar izan –eta izango– dituen kilometroak zenbatezinak dira, baina Legebiltzarrean bere sufrimenduaren ardura gurasoena zela aurpegiratu zion PPko hautetsi batek, lotsagabeki. Gorroto izpi-

Sarri inplikazio falta leporatu zaie gazteei; maiz, helduen diskurtsoak betikotzeko joera. Bistan da Del Hoyok, Muguruzak edota Iglesiasek hori gezurtatzen dutela

rik ez da ageri, ordea, Orain Presoak ekimeneko kide gisa ematen ari den elkarrizketetan: «Guk sufrimendu guztien biktimekin enpatizatzen dugu. Eta mendekuak biktima gehiago eta gehiago sortzea baino ez dakar. Zauriak ixtea da gure helburua», esan dio GARARI.

Sarritan inplikazio falta leporatu zaie gazteei; eta parte hartzea izan dutenean, aldiz, helduen rol eta diskurtsoak betikotzeko joera. Bistan da Peru del Hoyok, Ane Muguruzak edota Olatz Iglesiasek uste horiek goitik behera gezurtatzen dituztela. Biktimak izan arren biktimakeriatan gelditzeko tentazioari ihes egin diote, barruko samina etorkizun hobeago baterako hazia bilakatu dute eta adinak berezkoa duen freskotasun eta zintzotasunez mintzo dira. Arreta merezi duten ahotsak, proiektzioa behar duten pertsonak dira. •

BIZIPOZAREN JAIA

Errenterian ospatuko da, irailaren 29an

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Arlo ezberdinetako 33 elkartek osatzen dute Bizipoza, eta horietako bi ezagutuko ditugu erreportaje honetan, Errenteriakoak biak, Juneren Hegoak eta Mindara, Oarsoaldeko herri honetan izanen baita aurtengo Bizipozaren Jaia heldu den irailaren 29an. Egun osoko besta prestatzen ari dira, bereziki familiei zuzendua. Bertzeak bertze, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna eta mila lagunentzako bazkaria izanen dira (5 euroan bakoitza, gainerako guztia doan). Jende guzia animatu dute etortzera, baita boluntario izatera ere. Informazioa eta sarrerak, Bizipoza.eus-en.



Andoni CANELLADA | FOKU

JUNEREN HEGOAK

«30 familia lagundu ditugu; adituz, erietxean egonez, aulki bat lortuz...»

Tximeletadun kamisetak jantzita, ongiatorri goxoa egin digute Bea Martin, Maite Gartzia eta Alazne

Mendikutek Juneren Hegoak elkartearen egoitzan, Errenterian. Proiektua 2013an sortu zen. Martxoan June

haurra hil zen, minbizi baten ondorioz, eta haren gurasoek, Karlosek eta Amaiak, ospitalean hutsuneak sentitu

zituztenez, laguntza sare bat sortzea erabaki zuten.

Ekainean, lagun talde baten ahaleginez, Juneren Hegoak jaio zen, Gipuzkoa mailan behar bereziak dituzten umeei eta ahultasun egoeran dauden familiei laguntzeko.

Erietxean konturatu ziren bazirela zuloak Gizarte Segurantzak eta Osakidetzak betetzen ez dituztenak. «Adibidez, eri dagoen umea zaintzen ari zarela, baimena bukatzen zaizunean zer egin? Gauza horietan sartzen gara gu. Beste kasu bat izan zen guraso bakarreko familia batena. Bera bakarrik zegoen umea zaintzen, ez zuen sarerik. Orduan, ezin zuen etxera joan arropa aldatzera edo atseden hartzera. Doluan ere laguntzen dugu; bitartekari gara, horretan lan egiten duten elkartetara bideratzen ditugu. Gogorra da, baina aurrera egin behar da. Karlosek eta Amaiak, etxean gelditu beharrean, pauso hau eman zuten», adierazi dute.

70 bat boluntario
Boluntarioek osatzen dute elkartea. 70 izanen dira gutxi gorabehera, Oarsoalde ingurukoak. 15 urtetik hasi eta 65 urtera artekoak daude. Familiak inplikatzeko dituzte. «Gure familiak gurekin datoz. Gauza asko egiten dugu: batzuk ospitalera joaten gara, besteek proiektu bereziak egiten dituzte, edo merchandisinga, baina azkenean guztion helburua bera da: laguntzea, modu batera edo bestera. Batzuetan eskuak eta bihotza behar ditugu bakarrik. Adibidez, ospitalean boluntario gisa egoteko. Bestetan, dirua behar dugu aulkiren bat edo

tratamendu bereziren bat ordaintzeko».

Ekainean Juneren Hegoak Kirol Eguna egin zuten eta «oso ondo» joan zen. Goizean saskibaloian, eskubaloian eta eskaladan ibili ziren umeak; arratsaldean, aldiz, Tximeleta Triatltoa eta running solidarioa egin zituzten, Errenteriako Udalak eta hainbat elkartek eta boluntario sarek lagunduta.

«Bost urte hauetan babes handia jasotzen ari gara. Ez gaude bakarrik; beste elkarrekin batera ari gara lanean», baloratu dute. Hasieran jarritako helburuak betetzen ari al diren galdetuta, aho batez erantzun dute: «Bai, bai. 30 bat familia lagundu ditugu, era batera ala bestera, ospitalean egonez, tratamendu bat edo aulki bat emanez, entzunez edo beste elkarrekin batera bideratuz. Beti adin txikikoekin lotuta. Nahiz eta jada umea ez egon, gurasoei ere lagundu diegu».

Zuk zaintzeko, zu zaindu
Maite Gartzia ospitaleko boluntarioa da. Han umearekin goxo-goxo egoteak eta laguntzeak pila bat betetzen du. «Nik ezin dut –aitortu du Bea Martinek–. Horretarako balio behar duzu. Haurrak gaizki ikusi eta askotan ezin duzu musurik eman, protokoloak daudelako. Elkarrekin deitzen den arloan nago. Beste elkarrekin lan egiten dugu bertan. Gero, behar den edozein lekutan egoten naiz, denetarik egiten. Egunen batean ospitalera joatea tokatzen bazait joango naiz, baina nahiago dut beste lan batzuk egitea. Zeure burua ezagutu eta zintzoa izan behar duzu».

Ospitalean egoten ikasi dutela esplikatu du Gartzia. «Hasieran zure maitasunarekin joaten zara eta topatzen zara egoera batean... Behar den guztia egiten duzu baina gero etxera itzultzen zara. Etxera nola joan ere ikasi dugu. Hasieran gaizki bueltatzen ginen, gehiago eman nahi genuen, umeak gureak balira bezala tratatzen genituen eta ezin genuen hori egin, arazoa gure etxera ere eramaten genuen. Hemen formazioa jaso dugu, zuk zaintzeko zeure burua zaindu behar duzulako. Orain hobeto moldatzen gara».

Alazne Mendikutek azaldu du aspaldian ez dutela izan ospitaleko kasurik. «Zaila da. Niri asko kostatu zitzaidan pauso hori ematea, baina lortu nuen eta izugarri aberatsa da. Bi hilabeteko haur batekin egon nintzen, hodiz betea zegoen. Umea zaindu eta denek eskertzen dizute. Oso polita da».

Diotenez, zaila da familiak eurengana gerturatzea. «Normalean halako egoerak daudenean ezkutatu egiten ditugu. Beldur gara eta ez gara ausartzen pauso hori ematera. Jendeari gerturatzea kostatzen zaio. Etorri direnak gehienbat atzerritarrak dira. Hemen baliabide gutxiago daukatenak, pertsona sare eta ekonomia aldetik. Hemengoek familia gehiago daukate eta arazoak etxean konpontzen saiatzen dira orokorrean».

Zein behar dituzte familiak?

Boluntarioek azaldu dutenez, batzuetan denbora, «gu hor egotea». Bestetan dirua, tratamenduak edo aulkiak lortzeko. «Oso garestiak dira eta ez dira Gizarte Segurantzaz sartzen. Gainera,

kanpora joan behar dute batzuetan tratamendua hartzeko. Ahal duguna egiten dugu. Agian gastu guztia ez dugu ordaintzen baina laguntza txiki bat ematen diegu».

Eurekin mintzatzea, aditzea... Norbaitek entzuten dituela konturatzea ere inportantea da. Ez direla bakarrak ikustea, antzeko egoerak pasatu dituztenen aholkuak jasotzea. «Beraien arteko lotura oso interesgarria da. Momentu batzuetan oso minduta egoten dira eta ez dakite gauzak nola egin, edo ezin dituzte egin. Beste familia batzuk ezagutzeak edo gurekin hitz egiteak lasaitzen ditu eta babestuak sentitzen dira. Hori ere eskertzen dute».

Lagundutako pertsona batzuk boluntario bilakatzen dira, nahiz eta, orokorrean, ez duten denbora gehiegi. 24 ordu daude lanpeturik.

Egitura zabala

Juneren Hegoak elkartearen egitura zabala da. Hainbat talde daude: boluntarioak, ekitaldiak, merchandisinga, lokalaren mantenimendua, komunikazioa, administrazioa... «Familiak dira gure motorra. Denek eurengatik egiten dugu lan. Bakoitzak bere betebeharrak ditu eta gauzak egiteko elkartzen gara. Batzar bat dago koordinazio lana egiten duena».

Ostegunero lokala irekia egoten da kamiseta eta bertze produktuak saltzeko. «Familiarekin hitzorduak jartzen ditugu. Lan asko ez dugu hemen barruan egiten, kanpoan baizik».

Herrikideak dituzten Mindara elkartearekin proiektuak partekatzen dituzte. Bizipozako bertze

«Jendeari hurbiltzea kostatzen zaio. Etorri diren gehienak atzerritarrak dira. Hemengoek familia gehiago daukate eta arazoak etxean konpontzen saiatzen dira»

«Batzuetan eskuak eta bihotza behar ditugu bakarrik. Adibidez, ospitalean egoteko. Bestetan dirua behar dugu aulkiren bat edo tratamendu bereziren bat ordaintzeko. Helburua bera da beti: laguntzea»

elkarteekin urteroko bestan elkartzen dira eta bileretan parte hartzen dute. «Azkenean boluntarioa zarenean hemen eta beste leku batzuetan zara», onartu dute. «Bizipozak babes handia ematen digu, ez dauzkagun baliabideak, formakuntza... Batzuetan etortzen diren familien arazoak ezin ditugu konpondu baina beste elkarte batek bai. Hortaz, ongi dago sarea izatea eta bakoitzak zer egiten dugun jakitea».

Ilusio guztia

Bizipoza jaian izanak dira aitzineko hiru urteetan, Tolosa, Usurbil eta Derion. Aurten Erreterian egitea proposatu zieten aurrena eskuak burura eramane zituzten. Gero, ongi pentsatuta, «aurrera», erran zuten. «Guk egin dezakegu Mindararekin batera». Bizipozaren esperientzia hagitz baliagarria izaten ari zaie. Udala ere «denerako prest» dago eta bidea «erraza» izaten ari da. «Laguntza pila bat izaten ari gara. Ia dena lotua dago».

Erreteria osoan zabalduko den jaian gune ugari egonen dira eta horietako batean Bizipozako elkarte guztiak bilduko dira. Ezagutzea da asmoa, bai elkarren artean eta bai familek. Egitara familiarentzat da bereziki. Egun osoko besta izanen da eta garraio publikoan etortzeko deialdia egingen dute. «Gure ilusio guztia jarri dugu». Animatzeko erran nahi diote jendeari. Udalarari, Bizipozari eta Mindarari, aldiz, eskerrik beroenak eman nahi dizkiete. Kontent daude jendeak Juneren Hegoak elkartearen ezagutzen duelako eta bere tximeletak hamaika tokitan zabaltzen ari direlako.



Andoni CANELLADA | FOKU

MINDARA

«Inklusioa dugu xede, urritasuna duten eta ez duten haurrek ekintza beretan parte hartzea»

Mindara 2012an jaio zen Donostian, Euskal Pilota Egokituaren programarekin. Gero Erreenteriara aldatu zen eta bertan osasuna, kultura, aisialdia eta teknologia berriak lantzen hasi ziren aniztasun funtzionala duten ume eta gazteekin. Langileetako batek, Erika Martinezek, esplikatu digunez, zazpi programa dituzte orain. Nagusia Jarduera Anitza da. «4-16 urte bitarteko ume eta gaztetxoekin igeriketa, musika terapia, kirol egokituaren hastapena eta psikomotrizitatea egiten ditugu. Eskolaz kanpoko orduetan izaten da, aste barruan. Hori osatzeko Indar

programa dugu. Irteera eta tailerrak egiten ditugu: golfa, Plaiaundira joan, kamiseta tailerra...». Euskal Pilota Egokituko Eskola ere badute. «Pilotari batzuk gurpil aulkian ibiltzen dira eta besteak zutik. Urritasun intelektuala edo fisikoa dutenek edo urritasunik gabekoek joka dezakete. Erreenteriako jaietan txapelketa egin genuen partida inklusiboekin. 18 urtetik gorako pilotariak dira». Kima programan, norbaitek kirolen bat egin nahi badu eta ez bada ausartzen klub batera joaten eta bere egoera planteatzen, entrenatzaile bat jartzen

«Kirol egokitua eskoletan sartu beharko litzateke. Baina askotan ez daude prest pertsona bat jartzeko ume batentzat»

diote, klubera joaten dira berarekin eta banakako entrenamenduak egiten dituzte, baina klubaren barrenean. Ideia da entrenatzaile hori gero eta gutxiago joatea eta pertsona hori klubean gelditzea. Mahai tenisa egiten ari dira pertsona batekin eta bertze batekin eslaloma eta atletismoa gurpil aulkian.

Mindatxu udalekuak Mindatxu udalekuak bukatu berri dituzte. «Aste tematikoak egin ditugu: lehenengoa naturarena izan da, bigarrena urarena eta azkena kirolarena». Aurten 4 eta 16 urte bitarteko 18 ume eta gazte izan dituzte. Zazpi begiraleetako bat izan da Martinez. Kontatu duenez, elkarri pila bat laguntzen diote, handiek txikiei eta txikiek handiei. Baina ekintzak egiterakoan interesak eta arreta ez dira berdinak. «Inporta zaiguna da umea nolakoa den, ze gaitasun eta interes dituen, horren barruan lan egiteko. Adina zenbaki bat da eta askotan ez dator bat umearen izaerarekin». Udalekuon laugarren edizioa izan da. «Gero eta hobeto» ateratzen dira. «Hasieran barruan egiten genituen ekintza asko: eskulanak, tailerrak... Baina konturatu ginen umeei gustatzen zaiena ateratzea eta gauza berriak ikustea dela, autobusean edo trenean joatea...». Bizitu zinema egokitua ere sortu dute Juneren Hegoak-ekin batera. Ekainaren 28an izan zen bigarren emanaldia, Erreenteriako Niessen aretoan. «Oso harrera ona izan genuen. Lehenengoz

jarri genuen zeinu hizkuntzako interprete bat. Gorrak etorri ziren eta asko eskertu zuten. Gero eta egokituagoa da espazioa. Familiak etortzen dira umeekin eta espazio bera konpartitzen dute. Gure asmoa da Gabonen inguruan errepikatzea».

Urritasunak, oso zabalak Mindaran ikusi dute jendea ez dela konturatzen pertsona batzuk ezin direla ohiko zinema aretoetara joan. «Zinema egokitua, zergatik?», galdetu izan diote Martinez. «Zer dauka, arrapala bat?». Eta berak: «Ez, pentsatu gehiago. Urritasuna ez da norbait gurpil aulkian. Urritasunak oso zabalak dira». Downen sindromea, autismoa, garun paralisia, jokabide arazoak... Denetariko urritasunak dituzten ume eta gazteak biltzen dira Mindaran. Urritasunik gabekoak ere bai. «Hori da gure helburu nagusietakoa, inklusioa lortzea, eta urritasuna duten eta ez duten haurrek ekintza berberetan parte hartzea. Lehengusuekin, anai-arrebekin, lagun batzuekin lortzen dugu, baina ez da ohikoa».

Nahiz eta desberdinak izan, denak berdinak garaia aldarrikatzen dute, eta aukera berdinak izan beharko genituzkeela denok aisialdirako, osasunerako... denerako. «Badira elkarte edo erakunde asko sailkatzen dutenak: Downen sindromea hemen, autismoa han... Guretzat oso garrantzitsua da aniztasuna. Zailtasun asko ditu, ezaugarri ezberdinak dituzte, batzuk oso



MINDARA ELKARTEA

burugogorrek dira, baina moldatzen gara».

Langilez osatutako elkarte

Mindaran bederatzi langile daude. «Denok gara kontratatutako langileak. Ez gara boluntarioak. Boluntarioak ekintza puntualetan etortzen dira, txapelketa bat antolatzen dugunean, adibidez. Arraroa egiten zaio jendeari elkarte batean kontratuarekin aritzea lanean, baina guk asko baloratzen dugu hori. Profesionalak gara gure arloan». 32 familia hartzen dituzte guztira. Oarsoaldekoak dira gehienak, baina badira Bidasoaldekoak eta Donostialdekoak ere.

Mindara ez litzatekeela existitu behar pentsatzen dute. «Kirol egokitua eskoletan sartu beharko litzateke. Baina askotan ez daude prest pertsona bat jartzeko ume batentzat. Pertsona bat dago hogeitamerentzat. Horregatik sortu zen Mindara, behar hori ikusten genuelako».

Eskoletara joaten gara sentsibilizazio jardunaldiak ematera. «Oso garrantzitsua da hori irakasleentzat, eskolarentzat eta ikasleentzat. Eskatzen diguten edozein tokitara joaten gara, jende guztia sentsibilizatzeko oraindik lan asko gelditzen delako».

Erika Martinez hondarribiarra administrari gisa hasi zen Mindaran praktiketan. Gaur egun idazkari eta koordinatzaile dabil. «Denetarik egiten dut. Bosgarren urtea dut hemen eta gero eta hobeto nabil. Administrazio eta Finantzak ikasi nituen, ez du honekin

zerikusirik, baina hemen hasi eta beste ate batzuk ireki zitzaizkidan, asko gustatzen zitzaizkidanak, eta orain Gizarte Integrazioa ikasten ari naiz. Asko aldatu da nire ikuspuntua».

Zertan aldatu den galdetuta, hala erantzun du: «Gehienbat jendearenganako enpatia izaten ikasi dut. Aurreiritzirik ez izaten ere bai. Askotan pertsona bat ikusi eta esaten duzu: hau halakoa da. Baina gero ez du zerikusirik. Urritasunari buruz ere pila bat ikasi dut. Errespetu handia izaten dut jendearenganako. Lehen agian ez neukan hainbeste. Niretzat dira gauza horiek».

Aunitz hobetzen dira

Ume eta gazteek ere pila bat egiten dute hobera. «Gurasoak guregana etortzen dira eta esaten digute: ‘Aurtengo udaran ez du mangitorik behar’. Edo ‘aurten instrumentu batekin hasi da eta ahotsa ateratzen du’. Ze ongi!, diozu. Oso-oso positiboa da».

Juneren Hegoak elkarteak bezala, Mindarak ere erronka gisa hartu zuen Bizipoza Jaia antolatzea. «Mindara oso txikia da eta auzoetako jai txikiak antolatu izan ditugu. Baina ausartak izan ginen eta oso ondo doaz gauzak. Denek partekatzen dugu dena. Eta, honi esker, aurrerapauso bat ematen ari gara jendeak gu ezagutzeko. Jende gehiago gerturatu zaigu bulegora udalekuez galdezka. Jendeak gero eta gehiago ezagutzen gaituela sumatu dugu».

Pertsonalki ere aunitz ikasten ari da Erika Martinez, antolatzen, harremanak egiten... Programazio oso zabala osatu dute, «egokitua,



Gorka RUBIO | FOKU

egun osoan gauza pila egongo dira Erretereria osoan». Mindara elkarteak ere eskerrak eman nahi dizkie asmo honetan parte hartu duten eta parte hartuko duten lagun guztiei: Udala, babesleak, boluntarioak, elkarteak...

«Bizipozako elkarteekin bilerak egiten ditugu elkar ezagutzeko eta elkartearen martxa jakiteko. Formakuntza bereziak ere eman dituzte, gure artean partekatze nola komunikatu, nola iritsi hedabideetara, sare sozialak nola erabili... Bizipozan sartu ginenetik gauza positibo pila bat izan ditugu. Datorren urtean, adibidez, Real Sociedad Fundazioaren Egunean egongo gara elkarte berezi bezala», iragarri du langileak.

«Jendearenganako enpatia izaten ikasi dut. Aurreiritzirik ez izaten ere bai. Urritasunari buruz pila bat ikasi dut eta errespetu handia izaten dut»

JAIAREN EGITARAUA

ZUMARDIAN

Elkartasuna gunea: 10.00-16.00 Bizipozako elkartearen standak. 10.00-11.45 Familientzako Piko-piko jolasa. Egunean zehar Albaola Itsas Kultur Faktoriako lagunak. **Irria gunea:** 11.45-12.45 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. 16.00 Go!azen-eko lagunak eta photocall-a. 17.00-18.30 Irrien Lagunak-ekin parrandan! Ondoren, txokolatada. **Tximeleta gunea:** 13.15 ongi-etorria. 13.30-14.00 Concha rociera + Jon Maia. 15.00 Mindarako haurren ikuskizuna. 15.15 Kale Dor Kayiko.

GERNIKA PLAZAN

Ezberdin Berdinak gunea: Puzgarriak eta tailerrak ondo-ko lagunekin: Oarsoirriak (musika tresnak egiteko tailerra), Real Sociedad Fundazioa, Gipuzkoa Basket saskibaloi taldea, Mindara, Arteliburu21, Musikhazi (musika terapia), Juneren Hegoak, Bihotzez, Beti Prest (mutxiko dantzak).

MERKATUZAR ERAIKINEAN

Bazkaria: 13.30ean lehen txanda eta 15.00etan bigarrena. **Egun osoan, gune guztietan:** Amuletako danborrak, Deia-dar txaranga, Erretereria Musikal, Doike trikitilariak, batukada, mutxikoak, buruhandi eta erraldoiak, Ereintza taldea...



EXPRAI

iRRITZIA:



Iratxo Dortoka

Mirari Martiarena
Iraola

Plastikozko akuario txiki batean bizi ziren bi dortoka izan nituen umetan. Erdian iriatxo bat zuen, palmeratxo eta aterpe txiki batekin. Gogoratzen dut behin bietako bat hozkailu azpian sartu zela eta amak komeriak izan zituela bertatik ateratzeko. Ez dakit noiz arte egon ziren gure etxean, badakit ez zutela askorik iraun.

“Dragoi bola” marrazki bizidunak iritsi ziren gero nire bizitzara eta txundituta egoten nintzen beraiei begira. Son Goku eta bere lagunak abenturekin

iluntzero izaten genuen zita eta bertan Iratxo Dortoka azaldu zain egoten nintzen. Bere irlako etxe txiki eta dotorean, dortoka erraldoia lagun zuela.

Urteak pasata dortokak maite dituen lagun bat ekarri zidan bizitzak, nire Iratxo Dortoka propioa. Berarekin ikasi dut lurrian mantso ibili arren pauso seguruak ematen dituztela, lurrarekin lotzea garrantzitsua delako. Dortokak uretan arinak direla, emozioak sentitzen dituztelako, emozioetan dantzan ibiltzen direlako. Edo egin behar duten

bidea egiten ez badute goitibehera batean jarri eta bi hankak puskatzen dituztela. Eta bidean asmatuz gero «bingooo!» oihukatzen dutela.

Dortokek hondarretan jartzen dituzte arrautzak eta kumeak pixkanaka jotzen dira berriz ere uretara bueltan. Halaxe sentitzen naiz momentu honetan, hondar azpitik atera den dortoka-kumea uretara bidean. Iratxo Dortokak irakatsitakoak eta erakutsitakoak bizkarrean hartuta. Esker onez beteriko eskolarekin eta bihotzarekin, emozioekin dantzan egiteko desiratzen. •

Zatoz eta konta ezazu

Koldo Sagasti

Aurtengo udaldian opor bidaiak pentsatzen ari den askok ikusiko zuen telebistan, segur aski, Israelgo turismoa sustatzen duen publizitatea: “*Tel Aviv-Jerusalem. Two cities, one break*”.

Iragarkiak tentuz neurtutako mezua igortzen du. Modernitatea, hondartzak, gastronomia, festa eta hondartza gehiago... ortzadarraren koloreez apaindutako lelo batez hornituta. Turismoa Mediterraneoko herrialdearen diru sarrera garrantzitsua bilakatzea izango du helburu kanpainak, noski, baina ez hori bakarrik; turismoa kanporako leihoa ere bada; herrialdearen irudi abegikorra, aurrerakoia eta mo-

dernoa emateko plataforma. Israelek, beste baliabide asko bezala, turismoa ere erabiltzen du *apartheid* erregimenaren gehiegikerien gaineko arreta debideratzeko eta estatu sionistaren itxura jatorragoa emateko. Horregatik, hain zuzen, balizko kontsumitzaile festazale, hedonista, gazte, eta baita LGTB kolektibokoa ere erakartzeko ahalegina. Eta bide batez, lelo berean, bi hiri bisitatzeko gonbita: Tel Aviv eta Jerusalem. Bata nazioarteko legediak onartzen duen Israelgo Estatuko hiriburu ofiziala; bestea, aldiz, Palestinako hiriburu historikoa, mugimendu sionistak beretzat aldarrikatu eta 1967an okupatu zuena, Donald Trumpen erregime-

nak alde bakarrez eta nazioarteko erakundeek ebazpenak urratuz Israelgo hiriburutzat onartu berri duena. Dena ondo kalkulatu, erregimenaren irudia zuritzen duen mezua saltzeko.

Inportantea da Palestina bisitatzeko, hango egoeraren lekuko zuzena izatea, areago hedabide ofizialak sionismoaren kontakizun ofizial horren bozgorailu bihurtu direnean. Horrelaxe eskatzen digute behin eta berriz palestinarek: zatozte eta konta ezazue. Baina bidaide egokiak bilatu, urteroko brigadak antolatzen dituzten talde internazionalisten zein Palestinako bertako bidaia agentzien eskutik bidaiatu, eta *break* horren bueltan, kontatu. •

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*

{ koaderno } Amagoia Mujika Telleria

Zer usain dauka beldurrak?

Mediterraneoko uretan baldintza oso eskasetan nabigatzen saiatzen diren pertsona errefuxiatuen ontziak erreskatzten aritzen den batek kontatu dit. Batzuetan, ilunpetan, ontzi horiek ikusi baino lehen usaindu egiten dituzte. Oso usain berezia dute, sarkorra, ahaztezina. Pixa, kaka, gasolina, izerdia, kresala... hor sortzen den nahasketa zaila da deskribatzen. Erreskatean aritzen den profesional horren hitzetan, «beldurraren usaina» da. Izan ere, zer usain dauka beldurrak?

Sekulako zirrara sortu dit kontaketak. Beldurra zer den ondo jakin behar du bueltarik gabeko bidaia ikaragarri hori abiatzen duenak. Imajinatzen dut behin abiatuta, aurrera segitzea beste aukerarik ez duela, aurrera eta aurrera. Eta seguru naiz oso jakitun dela bidaia horretan dena galdu dezakeela, baita duintasuna ere. Duintasuna, batez ere.

Erreskateko ontzietan ur freskoa ematen diete, dutxa bat, osasun arreta, arropa garbia, jateko zerbait eta pixka batean egoteko toki bat. Finean, arnasa hartzeko tarte bat; bidaia ez baita bukatu, hasi baino ez da egin. Itsasoko zeharkaldi prekario hori gogorra da, baina gero datorrena ez da samurragoa.

Pablo Casado, Alderdi Popularreko buru berria, ikusi dut lurra zapaldu berri duten pertsona migratzaileen alboan argazkia ateratzen. Zein eta Pablo Casado, «denentzat paperik ez dagoela» eta mugetan «neurri zorrotzak» jarri behar direla esan duen tipo bera. Irribarretsu agertu da argazkian bi gazte beltzen ondoan, «ni ere pertsona naiz» eta «ontasunaren balio guztiak ez dira ezkerrarenak» esanez. Hortxe, errefuxiatuen krisiaren oinarrian dauden bi gako garrantzitsu: pertsonak eta ontasuna.

Denok gara pertsonak. Baina, maila bereko pertsonak al gara? Zer iritzi duzu, Pablo? Egunotan sarean ikusi dudana bideo batean, Madrilgo metroan emakume batek ez dio uzten haur bati bere ondoan esertzen,

«ez delako espainola». Zorionez, metroko bidaiari talde batek bere jarrera lotsagarria dela esaten dio. Baina ez zait iruditzen emakume hori iritzi aldarazi dutenik. Metrora igo eta jaitsi, iritzi berarekin egin duela esango nuke: «guri lana kentzera datoz; terroristak dira; ez dira gure ohituretara moldatzen; laguntza sozialetatik bizi nahi dute; oso arraroak dira; ilegalak dira; ezjakinak; batzuk onartuz gero, masan etorriko dira besteak atzetik...».


Alegia, Pablo Casadok eta beste askok benetan pentsatzen dutena metroko aulkian lasai ederrean eserita dagoen emakume horren ahotik ateratakoa da. Tira, ez omen dira pertsona txarrak eta pixka batean lagunduko omen diete, ontasunarekin izenean. Adibidez, zure etxe ondoan abandonatuta utzi duten katuari esne pixka bat eman diezaiokezu egun pare batez. Baina, gero, ospa egin dezala zure bistatik, ezta? Bestela egunero gogorazaraziko dizu bere abandonatu

Makina bat lan egin behar da denok kabitzeke moduko jendartea josten. Baina ez azaletik josia, orratza ondo barrura sartuta baizik, arrazismoaren babak orratzarekin lehertu eta azala berrituta

egoera eta, akaso, gaizki sentiaraziko zaitu. Horrelako zerbait behar du izan ontasun klase horrek.

Ontasunak, baina, ez du arazoa konponduko. Lehen urratsa, eskubide guztiak dituzten pertsonak ikusten hastea izango da. Eta ez da erraza izango. Lan asko egin beharra dago, norabide guztietan, baita alderdi politikoen mezuetan ere.

Hortik aurrera, makina bat lan egin behar da denok kabitzeke moduko jendartea josten. Baina ez azaletik josia, orratza ondo barrura sartuta baizik, arrazismoaren babak orratzarekin lehertu eta azala berrituta. Ez dago beste biderik, hau ere bueltarik gabeko bidaia bat da-eta. Eta gure beldurrak usain bera du. •



Argazkiak: JAIZKI FONTANEDA | FOKU

«6oko hamarkada erein aroa izan zen; gerora etorritako gauza asko orduan botatako hazitik sortu ziren»

Euskaltzale eta historiazale su-
tsua da. Jaiote-
rria duen Oñati-
ren historia
memorian ondo
jasoa du, zorroz-
tasun eta ze-
haztasun harri-
garritz. Jakintza
umila da berea.
Horregatik, az-
toratu samar ibili
da Oñatin
ekain hasieran
egin zioten
omenaldiarekin.
«Egun baka-
rrekoa zela uste
nuen eta ur-
duri jarri nintzen.
Pentsa aste-
beteko omenaldia
zela jakin
nuenean!». Poza
eman dio, hala
ere, hainbeste
maite duen
herriaren maitasuna
bueltan jaso izanak.

Oñatiko Kalezahar-
rean jaio zen,
gurasoak baserri-
tarrak zituen
arren. Aleman
Filologia ikasi
zuen Deustuko
eta Munster-eko
(Alemania)
unibertsitateetan.
Bergarako Aranzadi
ikastolan hiru urte
z irakasle aritu eta
gero UNEDeko
Euskal Kultur
departamentuan
beste 20 bat urte
z jardun du. Lakua-
ko Kultura Sailean
ere lan egin zuen
urtebetez. Ondoren,
Oñatiko Mondragon
Unibertsitatean
irakasle izan da
erretiroa hartu arte.
Lan ibilbidearen
parean, beste mila
saltsatan aritu da.
Bere hitzetan,
«euskararen li-
teraturaren historia
izan da

JERARDO ELORTZA EGAÑA

HIZKUNTZALARIA ETA HISTORIALARIA

Oñatiko eta Euskal Herriko historiaren
artxibo bizia da. Hainbeste ezagutzen eta
maite duen herriak omenaldia egin dio.

Amagoia Mujika Telleria

nire gai kutunena. Baina, etno-
grafia, soziolinguistika... beste
mila gauza ere landu ditut. Be-
harbada, gehiegi, baina gure
belaunaldiari arlo askotan sar-
tzea egokitu zitzaigun. Hala
ere, idatzi dudana %90etik gora
euskaraz idatzi dut».

Oñatiko artxibo bizi-bizia za- ra, eta baita Euskal Herrikoa ere. Nondik dator kizu ingu- ratzen zaituen munduareki- ko jakin-min hori?

Ni kalean jaioa naiz, nahiz eta
gurasoak baserrian jaioak
izan. Ama Euskal Herri-
tik kanpo ibili zen lanean;
Zaragozan, Madril-
en... Aita, baserri-
tarra zen arren,
industria munduan
ibili zen. Irakurtzeko
zaletasuna txikitatik
izan dut. Aita ere
zalea zen, gure etxean
egunkaria egunero
hartzen zen. Sol-
daduska garaian
gaixotu egin zen
gure aita, pleuresia
harripatu zuen –
nahiko gaixotasun
larria zen garai
hartan– eta urte-
bete eman zuen
senide batzuen
etxean, Elosuan –
Bergara eta Azkoitia
arte-
an, hango haizeak
senda zezan. Han
asko irakurri zuen;
bertso mordoa
ikasi zuen, bai
euskaraz eta bai
gaztelaniaz, eta
gustatzen zitzaion
hori guri transmititzea.
Etiket jaso nuen
nik zaletasun hori.
Garai hartan,
baina, liburu askorik
ez zegoen.

1957. urtean
Oñatiko historiari
buruzko liburu bat
atera zuen. Nik erosi
nuen lehenengotariko
liburua hura izan zen,
13-14 urte nituela.
Erosi eta irakurri
egin nuen. Oñati-
rekin dudana lotura
aspaldikoa da,
beraz. Eta histo-
riaren zaletasuna
ere oso gaztetatik
hasi nintzen
lantzen.

Euskara izan da zure bizitza- ko ardatzetako bat.

Hamahiru urte
nituela seminaria-
ria joan nintzen
Saturna-

ranera. Ez dakit kasualitatez edo, baina euskal munduan sartu nintzen. Ez han bereziki euskaltzetasuna zegoelako, baina bai Oñatin baino gehiago. Gogoratzen naiz kantu bakarra ikasi genuela euskaraz, Antzuolakoa zen irakasle bategen erakutsia.

Gure ume garai hartan mutikook oraindik euskaraz egiten genuen kalean. Neskak, nahiz eta euskaraz jakin, gaztelaniaz egiten hasi ziren. Guk hori ikusten genuen arrebarekin. Baina mutilen artean ere laster etorri zen aldaketa. Gure hurrengo belaunaldia gu baino erdaldunagoa izan zen. Orain 50-60 dituztenek, gaztelaniaz egiten zuten. Gure belaunaldiak gehiago eutsi zion euskarari. Ezagutu genuen zigor garaia euskaraz egiteagatik, baina ez hain gogorra.

Etxean, berriz, arreba hasi zen gurekin gaztelaniaz egiten; gurasoei euskaraz egiten zien eta, anaiei, gaztelaniaz. Jorera hark, baina, ez zuen asko iraun, laster bueltatu ginen euskaraz egitera.

Giro hartan iritsi nintzen Saturraranera. Esaten da seminarioak eta komentuak euskararen babeslekuak izan zirela. Tira, agian bai, baina ez haietan ezer berezirik egiten zelako, handik kanpokoa basamortu hutsa zelako baizik. Basamortua zen eta, gainera, batzuetan kontrako giroa ere bazegoen. Seminarioetan ere baziren kontrakoak.

Saturrararen urtebete eman nuen eta, gero, Donostiako seminariora joan nintzen. Seminarioan zortzi urte egon nintzen; bederatzi kurtso zortzi urtean egin nituen. Eta bi kurtsoan bakarrik ikasi genuen euskara; bosgarren mailan eta zortzigarrenean. Bosgarren mailakoa xelebrea izan zen,

«Esaten da
seminarioak eta
komentuak
euskararen

babeslekuak izan
zirela. Tira, agian
bai, baina ez
haietan ezer
berezirik egiten
zelako, handik
kanpokoa
basamortu hutsa
zelako baizik»

«Era gogor
samarrean ikasi
genuen euskara guk
orduan. Orain
esaten dute euskara
ikastea gogorra
dela, baina... Guk
euskaraz jakin
bagenekien, baina
alfabetatu beharra
genuen»

klasea gaztelaniaz izaten zelako eta irakaslea erabat euskararen kontrakoa zelako, nahiz eta euskaraz primeran jakin.

Zortzigarren mailan, aldiz, zortea izan genuen, Juan Mari Lekuonarekin ikasi genuelako. Ordurako sartua nengoen euskararen munduan eta harreman ona izan nuen Lekuonarekin.

Han beste irakasle bat zegoen, Anton Garro. Matematikako irakaslea zen, euskaldun berria eta ez zuen erraztasun handirik. Baina liburutegi oso oso interesgarria zeukan bere gelan; Kuliska sorta osorik, hasi berria zen Auspoa bildumako liburuak... Seminarioko liburutegi nagusian ez zeuden liburuak zituen berak. Bere kasa egindako bilduma zen eta utzi egiten zizkigun liburu horiek.

Horrelako militante banaka batzuk egokitu zitzaizkigun inguruan. Baina seminarioan bertan giroa ez zen bereziki euskaltzalea. Nik seminarioan ezagutu nituen gerora euskal literaturan oso sonatuak izan diren izenak.

Oñatiko euskalkiak zailtasunen bat ere bazekarren.

Gu ez ginen ez bizkaitar, ez gipuzkoar. Ez zegoen euskara baturik, jakina, eta euskalkiarekin nahiko lan genuen.

Gogoratzen naiz Intxaustik 'Euskal aditza' izeneko liburua atera zuela. Bi zati zituen, taula pila batekin, gipuzkera eta bizkaiera. Anton Garro irakasleak modu boluntarioan erakusten zizkigun eta nik uste guk biak ikasi genituela. Era gogor samarrean ikasi genuen guk euskara ordutan. Orain esaten dute euskara ikastea gogorra dela... Guk euskaraz jakin bagenekien, baina alfabetatu beharra genuen.

1965. urtean atera zinen seminariotik.

Bai. Garai hartan heziketa sakon samarra izateko dirua eduki beharra zegoen. Herri txikietako jende askok ez zuen modurik izaten ikasten jarraitzeko. Nik garai hartako selektibitatea zena egin nuen, PREU izeneko proba. Garai hartan oso jende gutxi zegoen euskaraz alfabetatuta. Seminarioan Rikardo Arregi ezagutu nuen eta banuen harremana berarekin. Hark eman zidan aukera, diru apur bat irabazteko, goizetik klase batzuk emateko Santo Tomas Lizeoan. Orain ospetsuak diren asko mutikotan eta neskatilatan ezagutu nituen nik bertan.

Gero, Rikardoren beraren birtartez enteratu nintzen bazela beka bat. Etxean ez nuen karga bat izan nahi. Garaian ohikoa izango zen lantegi edo bulego batean sartu eta lanean hastea. Baina ikasten segitzeko gogoaz azaldu nuen eta nola edo hala nahiko suertea izan nuen beka hori sortu zelako. Bilboko mediku batek eta bere emazteak eskainitako Deustuko Unibertsitateko beka bat zen eta baldintza jakinak bete behar ziren: letrak ikasi nahi zituen eta euskaraz alfabetatuta zegoen mutil batentzat zen. Eta ni parean egokitu. Beka horri esker ikasi nituen letrak Deustuko Unibertsitatean. Pentsa, EUTGn Patxi Altuna izan nuen irakasle. Eta, gero, Aleman Filologia ikasi nuen Deustun. Artean ez zegoen Historia ikasteko aukera, beranduxeago etorri zen. Historia egongo balitz, beharbada horixe ikasiko nuen, ordurako zaletasun handia neukan-eta.

Aleman Filologia, ordutan.

Aleman pixka bat banekien eta Humboldt-en kontuak ira-

kurrita nituen ordurako. Humboldt Alemaniako filologo garrantzitsua zen eta bi aldiz etorri zen Euskal Herrira 1800. urtearen inguruan, eta asko ikertu eta idatzi zuen euskarari buruz.

Jende asko Aleman Filologia ikastera joaten zen ikastetxe alemaniarretik edo familia alemaniarra zutelako. Haiek askoz oinarri hobea zuten. Niri gehixeago kostatu zitzaidan eta, gainera, beste hiruzpalau saltsatan sartuta nengoenez... Baina han ere, ikasteaz aparte, bizi egin behar zen etxetik kanpo eta Bilbon bertan euskarazko klaseak ematen nituen. Deustuko Unibertsitatean ere bazen hizkuntza eskola bat eta orduantxe sartu zuten euskara. Han ere aritu nintzen irakasle. Goizetik neure klaseak hartzen nituen eta iluntzetan nik ematen nituen euskarako klaseak, Patxi Altunaren metodoarekin.

Zer beste saltsatan ibiltzen zinen, bada?

Bilbon Kriselu antzerki taldean sartu nintzen, Arestirekin-eta. Era berean, Oñatin bazegoen gazte talde bat, Oñatz izenekoa, eta hor ere beste antzerki talde bat zegoen. Hor ere sartu ginen. Beharbada gauza gehiegitan sartzen ginen, baina orduko giroa hura zen, denetik egiteko garaia zen. Horrelakoxea izan zen 60ko hamarkada, erein aroa. Agian ez ziren gauza gehiegi lortu ordutan bertan, baina gerora etorritako gauza asko ordutan botatako hazitik sortuak ziren; kantagintzan, alfabetatze-euskalduntze mugimenduan, ikastolen bultzadan...

Hori izan zen egokitu zitzaizgun garaia. Oso gogoan dut Rikardo Arregi; langilea zen eta, gainera, jendea lanean jartze-

ko gaitasuna zuen. Oso eragile ona zen. Ez dakit astia nondik ateratzen zuen, baina denetarik egiten zuen eta, gainera, ingurukoak bultzatzen gintuen.

25-26 urte zenituela Alemaniara joan zinen.

Espezialitatea egin ahal izateko, aleman maila itxuroso bat behar zen. Gainera, ikasketen amaieran tesina bat egin beharra zegoen, alemanez, eta ahozko proba bat ere gainditu beharra zegoen. Hori dela-eta, 1968ko eta 1969ko udetan Alemaniara joan nintzen; lehenengo urtean beka batekin eta, bigarrean, bertako ospitale batera lanera eta mintza praktika egitera. Gero soldaduska egitea tokatu zitzaidan, marinara, urte eta erdi. Handik bueltatu nintzen 1972an, ikasgai batzuk zintzilik nituela

eta tesina egiteko. Hori egin ahal izateko, nire bikoteak eta biok elkarrekin Alemaniara joatea erabaki genuen. Horretarako lehendabizi ezkondu egin ginen –ezkondu gabe ezin zen halakorik egin garai hartan– eta Alemaniara joan ginen biok. Han zegoen Joxe Azurmendi eta haren babespean zeuden beste ikasle batzuk. Laguntasun handia eman zidan Azurmendik eta ondo moldatu ginen. Urte eta erdi inguru egon ginen bertan eta Euskal Herrira bueltatu ginen.

Eta irakasle lanetan hasi zinen.

Bai, hiru urte egin nituen Bergarako ikastolan eta gero UNE-Den, Bergaran bertan, beste hogeitasei bat urte. Batez ere euskarazko departamentuan aritu ginen, EGA eta bestelako pro-

bak bultzatzen eta zuzentzen. Euskaltzaindiarekin akordioa lortu genuen ikasketak eta azterketak bertan egin eta Euskaltzaindiaren titulua bertan banatu ahal izateko, haien kontrolpean noski.

Ordura arte ikastaro trinkoak eskaintzen ziren. Gure berritasuna izan zen urte osoko ikastaroak eskaintzen genituela, larunbatetan. Jende morderoa etortzen zen; Gasteiztik, Bilbotik, Gipuzkoako toki desberdinetatik, baita Nafarroatik ere. Bergara nahiko erdigune zen orduan. Jende morderoa eza gutu nuen. Pentsa, lehen kurtsoa 1977-78 inguruan izan zen eta, azkena, 1994. urtean. Milaka pertsona pasatu ziren handik. Bestelako euskara ikastaroak ere eskaintzen genituen, gainera, ez EGA ateratzeko bakarrik.

Euskararen inguruan eman duzu bizitza osoa. Nola ikusten duzu gaur?

Guri 60ko hamarkadan esan izan baligute 50 urtera euskara unibertsitatean sartuta egongo zela, eskola gehiengotik irakatsiko zela, euskaldunen kopurua hainbestekoa izango zela... ez genuen sine-tsiko. Gauza askotan asko arreratu da, jende askok lan handia egin duelako. Batasunaren kontua ezinbestekoa izan da eta irakaskuntzan, kazetaritzan... urrats oso garrantzitsuak eman dira. Garai bateko militantziak –eta horrek ez du esan nahi jende guztia militantea zenik– bere emaitzak ekarri dituela uste dut. Era-kundeetan ere pixkanaka ari da euskara sartzeko eta hori pozgarria da. Baina, nolabaiteko lasaialdi bat dagoela irudi-

tzen zait, jendeak euskaraz jakin bai, baina erabili gutxi egiten duelako. Alderdi horretatik Oñati gune pribilegiatua dela uste dut, erabilera datuak altu samarrak direlako.

Urte askoan aritu zara egunkariak biltzen eta jasotzen. Eta oraindik ere segitzen duzu, papera krisian dagoen garaian...


Jakiteak ez omen du tokirik okupatzen. Horixe okupatzen duela! Gure etxeak, ganbarak, inguruko garajeak eta baserriko mandioak ere bete izan ditut paperekin. Une batean erabaki egin behar izan dut: edo egunkariak, aldizkariak eta bestelakoak etxetik atera, edo neu atera etxetik.

Jasotzea gustatzen zait. Horrek denbora eskatzen du eta baita tokia ere. Eskerrak, hala ere, beti laguntzaileak izan ditudan inguruan.

Ez al zaituzte hemeroteka eta liburutegi digitalek tentatzen?

Ez dakit zergatik, baina ni gehiago izan naiz paperekoa. Egia da, hala ere, gaur egun garrantzitsua dela Internet erabiltzea, bestela desfasatuta geratzen zara.

Esaten da sarean dena dagoela. Bai, egia da, baina sarea liburutegi bat bezalakoa da, han ere dena dago, gauza onak eta txarrak. Eta beharrezkoa da galbahea pasatzea. Ni Wikipediarekin-eta beldurtu egin izan naiz. Astakeria handiak ikusita nago hor. Eta sarean dena onartzen da, hipotesi hutsa dena tesi bihurtzen da. Liburuetan eta entziklopedietan ere bazen akats hori. Era berean, egia da sareak aldaketak sartzeko aukera ematen duela eta hori abantaila handia dela. Baina adi ibili beharra dago.



OÑATI, HERRI BEREZIA ERTZ ASKOTATIK BEGIRATUTA

Oñatiarrak txantxikuak dira. Zergatik? Bertsio bat baino gehiago dago horren inguruan eta Jerardo Elortzak ondo ezagutzen ditu guztiak. Arinkeria iruditu dezakeenari tiraka hasi eta berehala agertzen dira Oñatiren historian pisua izan duten ezaugarriak. «Oñati ez zen Gipuzkoan sartu 1845. urtera arte. Betidanik izaera bereziko herria izan da; lehenengo jaurerria izan zen, XV. mende erdira arte edo, eta gero, konderria. Beti jauntxo baten mendean», hasi da kontatzen. Txantxikuen inguruko kondaira horietako batek dio oñatiarrek urtean behin Gebarako jauregira joan behar izaten zutela –Arabán, Gasteiztik gertu– eta han areto handi bat zegoela, zoruan lauza beltzak eta zuriak zituen. «Jauregian, adarra jotzearen edo, zera esan omen zieten: ‘baserritarrek abarka zikinekin egongo zarete eta ez zapaldu lauza zuriak, beltzak bakarrik zapaldu’. Eta lauza saltoka joan omen ziren». Hortik, salto egiteko era horretatik, txantxikuarena.

Geografia aldetik ere berezia da. «Gipuzkoako bailara gehienak hegoaldeko iparraldera nahiko bailara zuzenak eta estuak dira, ibaiek markatuak. Oñati, berriz, zabala da eta errekek zeharretara datoz. Askogatik Oñati da Gipuzkoako herririk handiena, ia 110 kilometro karraturekin. Baserri giroko hamasei auzo handi ditu. Alderdi horretatik, oso aberatsa da».

Populazio aldetik ere garrantzitsua izan da. «Erdi Aroan Donostia eta Tolosa izango ziren gune jendetsuenak, 4.000-5.000 biztanle ingururekin. Oñatik ere orduan izango zituen 4.000 biztanle inguru. Eta hori asko zen. XVI. mendetik aurrera, 5.000-6.000 izatera iritsi zen. Garai hartan Oñati, Bergara, Donostia eta Tolosa ziren populazio aldetik gunerik garrantzitsuenak. Kontuan izan behar da lehen esan duguna, XX. mendera arte Oñatik lauhun baserritik gora izan dituela. Hemen bertan kale baserriak esaten genituenak asko



ziren –bizpahiru abere eta baratze txiki batekin–, berrogeitik gora herrian bertan».

BESTE BEREZITASUNA: UNIBERTSITATEA

«Unibertsitatea tximiniarik gabeko lantegia zen Oñatin, diru iturri garrantzitsua zelako. 200-300 ikasle inguru izango zituen. Gaur egun ikasle gutxi direla dirudi, baina garai hartan ez ziren hain gutxi. Eta horrek neurri batean baldintzatu du Oñatiren izaera; kanpotik jendea etortzeak. Gehienak Euskal Herri ingurukoak izango ziren; hegoaldeko lau hiriburuak, Errioxakoak, Santanderrekoak... garai batean Ameriketako euskaldun batzuen semeak ere etortzen ziren». Horrek kale giroa desberdina izatea zekarren. Badira herritarren eta ikasleen arteko liskarrak izaten zirela kontatzen duten istorioak. «Ikasleak beti tunante samarrak izaten ziren, borrokak eta jokoa maite zituztenak. Horrelako kontuak agertzen dira XVII-XVIII. mendeetan. Herriko mitologian bada Txamao izeneko pertsonaia; misteriozkoa,

lekaixoka hasten dena (deiadarka edo irrintzika)... Herritarrek ikasleekin kokoteraino zeudela-eta, Txamaori eskatu zioten ikasle haiek errenditzeko laguntza. Txamaok ezustean eta bat-batean harrapatu eta idaurraz astindu zituen ikasleak. Ikasleak haserretu eta horietako batek erronka bota zion Txamaori, ezpataz borrokatzeko hil arte. Txamaok irabazi zuen eta ikaslea lurrean botata zuela esan omen zion; ‘ni hor banengo dagoeneko hilda egongo nintzatekeen, baina ni ez naiz hona etorri inor hiltzera’. Eta joaten utzi zion».

INDUSTRIA ERE IZAN DA

«Oñatin bertan hiru ola handi egon ziren. Pentsa, XV. menderako Zubillagan dagoeneko bazegoen ola bat. Harrezkero, han etengabe egon da industriagune bat».

Elortzak nabarmendu duenez, Oñatiren espezialitate nagusia iltzegileak izan dira. «Iltzeak eskuz egiten ziren eta baita zartaginak ere. Hemen, kalean bertan, sutegi mordoa zegoen. Maioristek

materiala ekarri eta enkarguak egiten zizkieten. Eta iltzegileek beren sutegi txikietan osatzen zituzten enkarguak».

XIX. mendean, lehen ola egondako tokian pospolo fabrika bat jarri zuten: Garay. 1864. urtearen bueltan hasi zen martxan eta 1901-1902 ingurura arte segitu zuen –tartean etenaldiak izan ziren arren–. «Pospolo fabrika Oñatitik Irunera eramane zuten eta herria oso egoera larrian geratu zen. 300 langile inguru zituen pospolo fabrikak, %80tik gora emakumeak eta umeak. Pospoloekin lan egiteko esku trebeagoak zituztelako eta gutxiago ordaintzen zirelako, segur aski».

Aldi berean, Oñatin bertan puntapaixa fabrika bat jarri zuten. «Puntapaixa iltzea zen, baina eskuz egin beharrean, makina batek egiten zuen. Alanbre bat sartu makinan eta bi kolpetan burua eta punta zorrotza ateratzen zituen. Iltzegile batek baino azkarrago lan egiten zuen makinak. Ondorioz, herriko 200 iltzegile langabezian geratu ziren».

Parean gertatu ziren pospolo fabrikaren itxiera, iltzegileen beharakada eta unibertsitatearen itxiera. «Urte gogorak izan ziren Oñatin. Iltzegile askok bere burua berrasmatu behar izan zuen eta saskigile bihurtu. Saski asko saltzen zen orduan; meatzetarako, ostalaritzarako, bidegintzarako... iltzeak egiten zituztenak saskiak egiten hasi ziren».

Herrian garrantzitsua den beste jardura bat ere aipatu beharra dago: Aterkigintza. Garayn 1920. urtetik aurrera aterkientzako hagaxkak egiten hasi ziren. «Lantegian ez zituzten aterkiak egiten, hagaxkak bakarrik. Baina, fabrikako lana utzi gabe, langileak etxepetan-eta tailerrak antolatzen hasi ziren eta aterkiak osorik egiten. Garai batean 8-10 tailer inguru egongo ziren. Orain bakarra geratzen da, Ezpeleta». Aterkigintzan ere emakumeak aritu dira nagusiki. «Hori da Oñatiko industriagintzaren beste ezaugarri bat: Emakumeek pisu handia izan dute».



Amaia Urrejola

Sexologoa eta psikologoa Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskolan

Sexuaren arazo bakarra sexismoa da

Hiru urte pasatu dira Nazio Batuen Erakundeak genero berdintasunerako eta ugalketa osasunerako ikastetxeetan Sexu Heziketa aurrera eramatea ezinbestekoa dela baieztatu zuenetik. Mende hasieran, Osasun Mundu Erakundeak Sexu Heziketa programak martxan jartzearen beharraz ohartarazi zuen. Hau da, haurrak berdintasunean, aniztasunean eta errespetuan heztea, sexuarekiko jarrera baikor eta naturala garatuz. Hala ere, sexua, oraindik, saihestu eta prebenitu beharreko arrisku bezala ikusten da kultibatu beharreko balio gisa hartu beharrean, tabuarekin, bekatuarekin, perbertsioarekin eta gaixotasunarekin erlazionatzen jarraitzen delako.

Historian zehar, ezjakintasun sexuala kontrol sozialerako giltzarria izan da, eta Mendealdeko medikuntza eta erlijioak hasieratik jabetu dira honetaz. Baina, instituzio patriarkalak direnez eta horien ideologiak zientziak eta balioek baino pisu gehiago eduki duenez, sexualitatea ulertzeko modu konkretu bat eraiki dute eta honetan doktrinatutako gaituzte: sexu moral erlijiosoa eta sexualitatearen eredu maskulinoa. Horrenbestez, sexualitate femeninoa ezeztatua, ezkutatua, debekatua eta erreprimitua izan da, eta hori bermatzeko moral bikoitza eraiki da. Sexua balio bezala sozializatzea negozio eskas bada, are gutxiago emakumeak beren gorputzen eta sexualitateen jabe izatea; eta, batez ere, arriskutsuagoa da.

Beraz, sexuaren arazo bakarra sexismoa da. Hala ere, pertsona oro heteropatriarkatu puritanoan heziak izan garenaz, sexua emakumeentzat leku arriskutsua dela barneratu dugu. Ondorioz, emakumeok gizonen sexualitate harrapakaria gelditzera edo honen aurrean amore ematera kondenatuak izan gara.



Sexua balio bezala sozializatu beharko genuke. GAUR8

Carole Vancek "Pleasure and Danger: Exploring Female Sexuality" (Plazera eta arriskua, sexualitate femeninoa esploratzen) liburuan dioen bezala, «emakumeen sexualitatea plazeraren eta arriskuen artean definitzen da».

Abiapuntua arriskua bada soilik, erotika (fantasiak, desirak, maitemintzea, sexu harremanak...) mehatxutik eta arriskutik definitzen dela seinalatzen du. Erotika emakumeentzat mehatxagarri bezala identifikatzea oso kaltegarria izateaz gain, sexualitatea ez ulertzea da, indarkeriarekin parekatzea baita, eta emakumeentzat sexua ez izatea balio bat. Honen harira, «sexu indarkeria» kontzeptua jaio da eta funtsezkoa da ter-

mino hau birpentsatzea. Sexua ezin baita inolaz ere indarkeriaren izenondoa izan, sinergiak eraiki, aniztasuna sortu eta gizartea aberasten duelako.

Laburbilduz, sexua gizonen eskura dago eta emakumeentzat kaltegarria izaten jarraitzen du. Zehazki, iraingarria eta umiliagarria izatera iritsi da eta gu geu gure polizia propioak bihurtu gara. Horrenbeste kakaztu dugu sexua, etsai bihurtu dugula eta honen kontra borrokatzen ari gara. Baina borroka honek soilik galtzaile bilakatuko gaitu, geure buruaren aurkako eta sexuen arteko guda bultzatzen ari baikara. Ezjakintasun sexualari esker, ikuspegi eta posizionamendu antisexual zaharrak mantentzen eta berriak eraikitzen hasi gara eta honi aurre egiteko sendagai bakarra sexu heziketa dugu. Askatasun sexualerako jakinduria sexuala ezinbestekoa baita eta Magnus Hirschfeld sexologoak esan zuen bezala, «sexuan, kultibatzeko balio gehiago daude saihestu beharreko arriskuak baino». •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jean VELEZ. VELEZ FAMILIAREN FUNTSA

1952KO EGUNSENTI BATEAN, KONTRABANDOAN

Bigarren Mundu Gerra amaituta, Madrilgo eta Pariseko gobernuek muga ixtea erabaki zuten. Ofizialki hori horrela izanda ere, mugalarien jardunak eta ondasunen eta produktuen kontrabandoak bizirik iraun zuen mugaren alde batetik bestera. Herritarren artean «gaueko lana» esaten zitzaion. Mugimendu horren inguruan gureganaino iritsi diren irudiak birsorkuntzak izan dira. Apenas dagoen jardun horren inguruko argazkirik. Goian ageri den Jean Velezen argazkia izango da, segur aski, dagoen bakarretakoa eta gutxi batzuetan argitaratua izan dena. Argazkia egunsentian egina dago, 1952. urtean, Larhun mendiaren hegalean. Kontrabandistek mandoaren gainean daramate Saran kargatutako merkantzia.



GAUR8 ireki gure leihoa

